



2024KO URTEKO MEMORIA

UNRWA Nafarroa

Palestinako errefuxiatuen aldeko Nazio Batuen Agentzia



erkidego batzordea



unrwa
nafarroa

EDUKIEN ZERREDA

Nor gara.....	07
Non egiten dugu lan.....	08
Palestinako Lurralde Okupatua.....	10
Gazako Zerrenda.....	12
Zisjordania.....	14
Siria.....	16
Jordania.....	18
Libano.....	20

UNRWA NAFARROA

Gure lana.....	22
Ekintza Humanitarioa eta Garapena.....	24
Herritartasun Globalerako Hezkuntza.....	26
Beste albiste eta jarduera interesgarriak.....	30

An aerial photograph of a city in ruins, likely Gaza, showing extensive rubble, damaged buildings, and smoke rising from the ground. The image is dark and somber, serving as a background for the text.

**6 MILIOI PALESTINAR
ERREFUXIATU BIZI DIRA
GAZAKO ZERRENDAN,
ZISJORDANIAN (EKIALDEKO
JERUSALEM BARNE),
JORDANIAN, LIBANON ETA
SIRIAN, HAIEN EGOERAREN
KONPONBIDE JUSTU ETA BEHIN
BETIKO BATEN ZAIN.**

**PALESTINAKO ERREFUXIATUAK
MUNDUKO ERREFUXIATURIK
ZAHARRENAK DIRA.**

NOR GARA



UNRWA, PALESTINAR ERREFUXIATUEN BIZTANLERIARENTZAKO NAZIO BATUEN AGENTZIA

1950eko maiatzaren 1ean UNRWA agentziak bere lana hasi zuen, 700.000 errefuxiatu baino gehiagori larrialdiko laguntza emateko eta gizarte-laguntzako programak hasteko helburuarekin.

75 urte eta gero, UNRWA erakundearen xedea Jordanian, Libanon, Sirian eta Palestinako lurralde okupatuan (hau da, Gazako zerrenda eta Zisjordania, Ekialdeko Jerusalem barne) Palestinako 6 milioi errefuxiatu baino gehiagori laguntza, babesa eta defentsa ematea da, haien egoera zailari irtenbide baketsu eta iraunkor baten zain dauden bitartean.

UNRWA ia osorik NBEko estatu kideen, erakunde publiko eta pribatuen eta herritarren borondatezko ekarpenek finantzatzen dute.

NOLA EGITEN DU LAN AGENTZIAK

UNRWAK Palestinako errefuxiatuen ongizate eta giza garapenaren alde lan egin du. Hasiera batean, hiru urte iraungo zituen aldi baterako erakundea zen. Geroago, ordea, Agentzia pixkanaka bere programak egokituz joan zen, sei hamarkadatan baino gehiagoan errefuxiatuen beharren aldaketak asetzeko.

UNRWAK garapenerako eta laguntza humanitariorako programak eskaintzen dizkie Palestinako 6 milioi errefuxiatu baino gehiagori 58 kanpamentutan, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzu, mikrofinantzak, giza eskubideen babesa eta erantzun humanitario eta larrialdiko zerbitzuen bitartez.

Sortu zenetik, Agentziak etenik gabe egin du lan, bai Ekialde Hurbilean egondako barealdietan, bai liskar armatuen garaietan. **babeseko** eta erantzun humanitarioko eta larrialdiko zerbitzuen bitartez.

Sortu zenetik, Agentziak etenik gabe egin du lan, bai Ekialde Hurbilean egondako barealdietan, bai liskar armatuen garaietan. Izan ere, Palestinako errefuxiatuen giza garapenerako nazioarteko konpromisoaren eredu, zuzenean eskaintzen dizkie zerbitzuak.

UNRWA erakundeak ehunka eskola kudeatzen ditu zuzenean Ekialde Hurbil osoan. Gainera, Agentziak osasun-arreta ematen du lehen mailako osasun-zentroen eta urruneko komunitateetara iristen diren arreta-puntu mugikorren bidez. Gizarte-arretarako zentroak, garapen komunitarioko zentroak eta emakumeentzako zentroak ere baditu.

UNRWA NAFARROAREN KONPROMISOA

2006an sortu zen UNRWA Nafarroa, eta bi helburu nagusi ditu: batetik, nafar gizarteari Palestinako errefuxiatuek bizi duten egoeraren berri ematea eta, bestetik, UNRWA agentziak haiekin duela 75 urtetik egiten duen lan humanitarioa zabaltzea. Horrez gain, UNRWAK biztanleria honi eskaintzen dizkion zerbitzuak mantentzen laguntzeko, erakundeak funts publiko zein pribatuak biltzen ditu.

NON EGITEN DUGU LAN





unrwa
nafarroa

LIBANO



493.201 pertsona erregistratuak
12 kanpamendu

SIRIA



586.842 pertsona erregistratuak
9 kanpamendu

ZISJORDANIA



912.879 pertsona erregistratuak
19 kanpamendu

GAZAKO ZERRENDA



1.586.965 pertsona
erregistratuak
8 kanpamendu

JORDANIA



2.393.135 pertsona erregistratuak
10 kanpamendu

PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUA

Palestinako lurralde okupatua azken hamarkadetako unerik zailena bizitzen ari du. Gazako biztanleriak aurrekaririk gabeko krisialdi humanitarioari aurre egin behar dio; aldi berean, Zisjordanian, Ekialdeko Jerusalem barne, bigarren intifadatik (2000-2005) ikusi ez den indarkeri mailetara iritsi da.

Gazako zerrendako 2,1 milioi biztanleak krisialdi humanitario larrian bizi dira, gosetetik oso gertu. Ia funtsezko azpiegitura guztiak, hala nola osasuna, energia, ura, hondakinen kudeaketa eta babeslekuak, suntsituta edo erabili ezin gabe daude.

Egoera larri hau, agente humanitarioek lurraldean sartzeko dituzten etengabeko murrizketen ondorioa da ere, laguntza eta oinarrizko zerbitzuak ematea eragozten baitute. Urtebete baino gehiago igaro da erasoaldia hasi zenetik eta giza bizitzen kopurua etsigarria izan da. 2024ko abendura arte, 45.000 palestinar baino gehiago hil dituzte, horien artean emakumeak eta haurrak, eta gutxienez 107.000 zauritu dituzte. Horrez gain, milaka palestinarrek hondakinen azpian desagertuta jarraitzen dute.

Zisjordanian, Ekialdeko Jerusalem barne, indarkeria, eraispenak eta zirkulazio murrizketak bigarren intifadatik ez diren ikusi mailetara iritsi dira.

Israelgo armadak Zisjordanian egindako erasoaldiak izugarri areagotu dira eta gero eta militarizatuago daude. Izan ere, aire-erasoak ere erabiltzen ditu eta etxebizitzak eta azpiegitura zibilak suntsitu egiten ditu. Halaber, kolonoen erasoak eta talde armatuen eta Israelgo armadaren arteko liskarrak areagotu egin dira.





PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUA



ZISJORDANIA

ZISJORDANIA

Zisjordanian dauden Palestinako errefuxiatuen laurdena UNRWA agentziak eskualde horretan kudeatzen dituen 19 kanpamentuetan bizi da. Gainontzekoak hirietan eta herrietan bizi dira. Gazan pairatutako izugarrikeriak bizi ez diren arren, Zisjordanian ere une latzak nagusitu dira. Gai Humanitarioak Koordinatzeko Nazio Batuen Bulegoaren arabera, 2023ko urriaren 7 eta 2025eko urtarrilaren 26 bitartean 845 palestinar hil zituzten Zisjordania okupatuan, Ekialdeko Jerusalem barne. Horietatik 498 2024an.

Zisjordanian, indarkeria areagotzen ari da, bereziki armadaren aire-eraso gero eta ugarien eta kolono israeldarren erasoen bidez. Osasun, hezkuntza, ura, saneamendu eta higiene instalazioen aurkako erasoek behin eta berriz suntsitzen dute funtsezko azpiegitura zibila. Palestinarrak eta agente humanitarioek hiri edo eremu batetik bestera bidaiatzeko eragozpenak jarraitzen dituzte mugitzeko murrizketak direla eta. Israelek esportazioei eta inportazioei ezartzen dizkien etengabeko murrizketek, Palestinako Agintaritzaren diru-sarrerak etetearekin batera, soldatak ordaintzea eta funtsezko zerbitzuak ematea oztopatu egiten dute. Langabezia % 60koa da, sektore pribatuaren likidezia murrizten ari da eta merkataritza informalak behera egin du.

Israelek lan-baimenak lortzeko eta nekazaritza sektorean sartzeko ezarri dituen murrizketen ondorioz, bizirik irauteko aukerak ere gehiago larrituko ditu.

Israelgo indarrak neurri handiko operazioak egiten hasi ziren Zisjordania okupatuan 2023. urtearen erdialdean. Ordutik, milaka familia lekuz aldatu behar izan dira. Etengabeko operazio suntsitzaileen ondorioz, iparraldeko errefuxiatuen kanpamentuak ez daude bizitzeko moduan. Beraz, bertakoak behin eta berriz lekualdatu behar dira. 2024an, lekualdaketen % 60 baino gehiago Israelgo indarrek inolako agindu judizialik gabe egindako operazioen ondorio izan ziren. Indar israeldarrek aire-erasoak, hondeamakina blindatuak, leherketa kontrolatuak eta armamentu aurreratuak erabiltzea ohikoa bihurtu da.

Egoera bereziki larria izaten ari da Jeningo kanpamentuan, 20.000 biztanle inguru zituena. 2024. urtearen amaieratik bertako biztanleak oso egoera estuan daude. Izan ere, kanpamentuko milaka egoiliar behartuta lekuz aldatu dira, eta askok ez dute itzultzeko lekurik izango. Bizitzaren oinarritzko osagaiak desagertu egin dira.



GAZAKO ZERREDA

GAZAKO ZERRENDAA

Gazako zerrendak bere historiako urterik txarrena bizi izan du. Israelek erasoaldia hasi zuenetik 2025eko urtarrilera arte gutxienez 45.000 pertsona hil dituzte, % 70 emakumeak eta haurrak, eta 110.000 zauritu dituzte. Milaka hondakinen azpian jarraitzen dute.

Hori da elikagaien eta osasun-arretaren faltak, ur kutsatua kontsumitzeak eragindako gaixotasunek eta abarrek eragindako heriotzak kontuan hartu gabe.

Gazako herritarren % 90ak (1,9 milioi pertsona) bere etxea utzi behar izan du, eta etxe eta instalazio gehienak suntsitu egin dira. Zerrenda osoko azpiegituren % 70 inguru kaltetuta edo suntsituta daude. Horien artean UNRWA agentziaren 200 instalazio daude (osasun-zentroak, eskolak, zentro logistikoak, etab.).

Urtebete baino gehiago igaro da Israelen erasoaldia hasi zenetik, batez ere Gazan, baina baita Zisjordanian ere, eta heriotzak eta hondamendia izugarriak izan dira.

Larrialdiko elikagai-laguntzaren mendekotasuna ia erabatekoa da, nekazaritza-sistemak suntsitu egin direlako eta inportazioak mugatuta daudelako. FAO erakundearen arabera, zerrendako berotegien % 56,5ak kaltea jaso du 2023ko urria eta 2024ko abendua bitartean. Gainera, lehen laborantzarako eta olibadietarako erabiltzen ziren soroen % 75 kaltetu edo suntsitu izan da eta abere galerak % 96koak dira.

Gaza planetako lekuri arriskutsuenetakoa da laguntza eramateko. Argi markatutako laguntza humanitarioko konboiek askotan erasoak jaso dituzte, nahiz eta Israelgo indarrek formalki onartu mugitzeko aukera.

NBEren erregistroen arabera, 2024a langile humanitarioentzako urterik hilgarriena bilakatu da. Gazan gutxienez 320 langile humanitario hil zituzten gatazkaren lehen urtean, gehienak UNRWA agentziako langileak.

Erasoaldian zehar, UNRWA erakundeak 1,9 milioi gazatarrentzako janari-anoak banatu ditu eta egunean 16.000 kontsulta mediko egin ditu batez beste; guztira 1,6 milioi kontsulta 2024ko abendura arte. Gainera, 520.000 haurrek laguntza psikologikoa jaso dute saio eta jardueren bidez. UNRWA funtsezko eginkizuna izaten ari da susperraldian. Eskaintzen dugun laguntza kaltetutako pertsonengana iristen ari da oraindik ere, eta Agentziaren azpiegitura eta langileak ezinbestekoak dira Nazio Batuen munduko erantzun humanitariorako.



SIRIA

SIRIA

Siriako krisialdia XXI. mendeko gatazkarik hilgarriena da, eta munduko lekualdaketako larrialdirik handienetakoa. Gatazkak ustekabeko norabidea hartu zuen 2024ko abenduaren 8an, Bashar al-Assad en gobernua bukatu zenean, milaka preso politiko askatu zituztenean eta behin-behineko administrazio berri batek kontrola hartu zuenean. Borroka armatuak 6 milioi errefuxiatu utzi ditu, eta barne lekualdatu asko. Erregimenaren erorialdiaren ondoren, inguruko herrialdeetan errefuxiatuta zeuden milaka pertsonak etxera itzultzeko bidaiari ekin diote.

Krisialdiaren aurretik, UNRWak 560.000 palestinar errefuxiatu zituen erregistratuta Sirian.. Gaur, 438.000 gelditzen dira; horietatik % 40 barne desplazatuak dira, eta bosten batek alde egin du. Horren barruan sartzen dira ondoko herrialdeetara joandako Palestinako 44.202 errefuxiatu. Horietatik 20.324 Jordaniara eta 23.878 Libanora joan dira.

Trantsizioko administrazioak gobernantza sendotu eta osasun, hezkuntza eta ur horniketa oinarriko sistemak berreraiki beharko ditu, eskualdearen egonkortasunerako erronka garrantzitsuei, Siriako lurraldeko ekintza militarri eta oinordetzan jasotako krisialdi ekonomiko itogarriari aurre eginez.

Tokiko eta eskualdeko azken indarkeria-agerraldien aurretik ere, Sirian bizi ziren Palestinako errefuxiatuen ia % 90a, 2,15 dolar baino gutxiagorekin bizi zen egunean. Elikagaien segurtasuna Palestinako errefuxiatuen artean izugarri okertu da azken hiru urteetan: elikagaien segurtasun eza tasak etengabe igo dira 2022ko irailean % 46 izatetik 2023ko irailean % 56 izatera arte eta, gero, 2024ko martxoan % 62 izatera arte. Ume gehienak elikadura-pobrezian daudela, herrialdea desnutrizioa krisialdi batean sartzen ari da.





JORDANIA

JORDANIA

Gazako gatazkarekin lotutako liskarren gorakadak, Jordaniaren egoera sozioekonomikoa kaltetu du eta segurtasun-arriskuak areagotu ditu.

Egoeraren aldaketa gehien nabaritu duen biztanleria zaurgarriena izan da. Libanon, Sirian eta Iraken bizi diren Palestinako errefuxiatuak horren barruan daude. Jordanian dagoeneko munduko biztanle bakoitzeko errefuxiatuen bigarren populaziorik handiena bizi da.

Bizitzaren kostua igotzeak are zailago bihurtzen du herrialdeak krisialdiak eragindako pertsonen etorrera kudeatzeko duen gaitasuna, eta Palestinako eta arriskuan dauden beste talde batzuetako errefuxiatu gehiago zaurgarritasun sakonagora bultzatzen ditu.

Bata bestearen gainean dauden krisialdi luze hauei erantzunez, UNRWA erakundean erantzuna egokitzen jarraitzen dugu kaltetuen behar aldakorrak asetzeko, laguntza humanitarioa zaurgarrienengana iritsiko dela ziurtatuz.





LÍBANO

LIBANO

Gerrak Libano ere astindu du azken urte honetan. 2024ko iraila eta azaroa bitartean, Hezbolá eta Israelen arteko gatazkaren larriagotzerik handiena bizi izan zuen Libanok, 2006an egondako gerratik. 2023ko urrian Gazako gatazka hasi zenetik Lerro Urdinean zehar izandako liskarren areagotzeari jarraitu zion indarkeriaren gorakada horrek.

900.000 pertsona inguru lekualdatu behar izan dira barnean gatazkaren ondorioz, Palestinako 30.000 errefuxiatu barne, 2006ko lekualdaketako mailak gaindituz. Funtsezko azpiegiturak suntsitu edo kaltetu dira, bizitegi-eraikinak, ur-instalazioak eta osasun-zentroak ere bai. Hezkuntza etenda egon zen ikasturtea hasi zenetik azaroaren amaierara arte. Herrialdeko eskola guztiak itxita eta klaseak etenda egon ziren Libanoko 340.000 bat ikaslerentzat, UNRWA agentziako 38.000 ikasle inguru barne. Agentziaren eskola asko larrialdietarako babesleku izendatu gisa erabili dira.

Hildakoez, zaurituez, joan-etorri masiboez eta suntsipenaz gain, gatazkak milaka bizitza jarri zituen arriskuan eta talde zaurgarriek, hau da, adinekoek, emakumeek, desgaitasunak dituztenek eta haurrek, arrisku handiagoei egin zieten aurre.

Egungo krisialdi humanitarioari erantzunez, UNRWA erakundean larrialdietarako 12 babesleku izendatu ireki genituen gure eskoletan, funtsezko gaiak eskainiz, hala nola elikagaiak, ura, koltxoak, tapakiak eta elikagaiak ez ziren beste gai batzuk. Halaber, laguntza psikologikoko zerbitzuak eta jolaserako jarduerak eskaini genizkien barruan lekuz aldatutako pertsonen, bereziki haurrei.

UNRWA agentziaren larrialdietarako babesleku izendatuek behar zuten lekualdatutako pertsona guztiei lagundu zieten, gizarte-kohesioa sustatuz eta oinarri humanitarioak defendatuz. Azaroaren 27ko su-etenak aukera eman zuen behar humanitario premiazkoenei heltzeko eta pertsona zaurgarri eta desplazatuentzako laguntza humanitarioa zabaltzea errazteko.



GURE LANA



UNRWA NAFARROAREN LAN-EREMUAK

UNRWA Nafarroa lana honako jarduera-arlo hauetan garatzen da:

1. Laguntza humanitarioa eta garapena:

Agentziak Palestinako errefuxiatuei ematen dizkien zerbitzuen kalitatea bultzatzeko eta iraunarazteko, UNRWA Nafarroa finantzaketa jasotzen du, publikoa (lankidetza deszentralizatua) zein pribatua (enpresak, bazkideak eta banakako dohainak).

Jarduten den lan-eremuak dira osasun-laguntza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, azpiegiturak, mikrofinantzak, elikagai-laguntza, larrialdiak eta giza eskubideen babesa.

2. Herritartasun globalerako hezkuntza:

UNRWA Nafarroaren iritzi, herritartasun globalerako hezkuntza prozesu bat da, munduko egoeraren inguruan kontzientzia kritikoak pizteko eta herritarrei parte hartzeko eta gizartea eraldatzeko eta bidegabekeriaren aurka modu solidarioan borrokatzeko tresnak emateko, eta garapen global eta jasangarri baten alde lan egiteko, tokian tokikotik abiatuta globaltasunera iritsiz.

Herritartasun globalerako hezkuntza zeharkako tresna dela ulertzen du, bizitzako etapa guztiak hartu behar dituen eta sentsibilizazioaren bidez eremu formalean (eskolak eta unibertsitateak, adibidez) nahiz formalean ez diren eta informalean txertatzen dena.

Hala, UNRWA Nafarroa lanean ari da nafar herritarrak Palestinako 6 milioi errefuxiatu baino gehiagok bizi duten egoeraren inguruan sentikor bihurtzeko eta UNRWA agentziaren lan humanitarioa zabaltzeko. Honako hauek dira lan-ildoak:

Sentsibilizazioa: hitzaldi, jardunaldi, zinematik eta erakusketa ibiltarien bidez, baita unibertsitate eta irakaskuntzaren sektorerantzuzendutako prestakuntzako ikastaro eta tailerren bidez ere, besteak beste. Prestakuntzako jardunaldi edo zikloek giza eskubideei lotutako hainbat gai lantzen dituzte.

Bakearen kultura, herritartasun globalerako hezkuntza eta genero-berdintasuna.

Hezkuntza eremu formalean, informalean eta formalean ez diren: nafar hezkuntza komunitate kontzienteagoa, solidarioagoa eta parte-hartzaileagoa sortzen laguntzen dugu, 2030 Agenda eta giza eskubideak betetzeko eta metodologia artistiko eta berritzaileak erabiliz.

EKINTZA HUMANITARIOA ETA GARAPENA

Gainpopulatutako errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren eta elikadura eta lan segurtasunik eza pairatzen duten Palestinako milioika errefuxiatu neurrigabe daude arriskuan. Horregatik, UNRWA erakundeak gauzatzen dituen ekintza humanitarioko programak bereziki beharrezkoak izan dira Palestinako errefuxiatuek bizi duten egoera konplexu eta larriari aurre egiteko. 2024an zehar, UNRWA agentziak Palestinako 5,9 milioi errefuxiaturi larrialdiko laguntza, elikatzeko laguntza, hezkuntza eta lehen mailako osasun-arreta ematen jarraitu du, dohaintza-emaila publiko eta pribatuen babes eskuzabalari esker.

Gaza: larrialdiko elikagai-laguntza

Palestinako errefuxiatuentzako UNRWA agentziaren **Euskal Herriko Funtsaren** bitartez, **Beriaingo udalak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Bargotako udalak** 2.450 laguni gutxi gorabehera (% 50a emakumeak) elikagai-saskiak banatzen lagundu dute. **Burlatako udalak**, bere aldetik, lagundu du Gazako biztanleentzako beharrezko elikagai-laguntza emanez; horri esker, Palestinako 211 pertsonak gutxi gorabehera jaso ahal izan dituzte oinarritzko elikagai-saskiak (horietatik % 50a emakumeak, % 47a haurrak eta % 3a desgaitasunaren bat duten pertsonak).



Laguntza horri esker, pertsonak eguneko kaloria-beharren % 90a jasotzen dute eta, hala, elikaduraren segurtasunik eza murriztea eta pertsona ahulenen biziraupena bermatzea lortzen da. Izan ere, Gazako zerrendan herritar guztiak kanpoko laguntzaren mende daude oinarritzko beharrak betetzeko, eta elikaduraren segurtasunik ezeko egoeran daude. .

Zisjordania: osasuneko programa indartzea

Nafarroako Gobernuak UNRWA erakundearen osasuneko programari lagunduko dio 2022an hasitako proiektu baten hirugarren fasearen bidez.

Proiektuari esker, Zisjordaniako Jenin eta Tulkarem kanpamentuetan ahulenak diren Palestinako errefuxiatuek lehen mailako osasun-arreta jasotzeko eskubidea sustatuko da.

Proiektu honen bitartez ama-haurren osasun-zerbitzu osoak (familia-plangintza, zaintza perinatal osoak eta 12 hilabetetik beherakoentzako haur-zaintzak) eta kutsakorrak ez diren gaixotasunen (diabetesa eta hipertentsioa, adibidez) prebentzioko eta tratamenduko zerbitzuak eskainiko dira Palestinako 12.000 errefuxiaturentzat, gutxi gorabehera.

Libano: osasuneko programa indartzea

Nafarroako Kutxa Fundazioak Beiruteko (Libano) osasun-zentro batean emakumeen eta 12 hilabete arteko haurren lehen mailako arreta medikoa eta osasun-arreta eskaintzen laguntzen du.

Proiektu honi esker, hilean 4.614 pertsonari, gutxi gorabehera, ematen zaie lehen mailako arreta medikoa 12 hilabetez (horietatik % 57a emakumeak eta neskak dira), eta proiektuan guztira 1.848 haur artatu dira.

Horrez gain, osasunerako sarbidea bermatzen du proiektuak, bereziki emakumeena eta 12 hilabete arteko haurrena, eta zentrora joaten diren emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzen ditu.



HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA

Ekintzak Nafarroan

UNRWA Nafarroak Palestinako errefuxiatuen egoera humanitarioarekiko konpromiso osoa dauka. Hori dela eta, herritartasun globalerako hezkuntzaren eta nafar gizartea sentsibilizatzearen arloko jarduerak burutzen ditu.

Palestinako errefuxiatuen eskubideen aldeko ikasleen, irakasleen eta komunitate-ingurunearen mobilizazio proaktibo eta artibistarako proiektua Nafarroako ikasgeletan

2024an, herritartasun globalerako prestakuntzako, sentsibilizazioko eta mobilizazioko proiektuei jarraipena eman zaie Nafarroako eremu formaleko ikastetxeetan, 2023-2024 ikasturtearen azken zatian bost ikastetxerekin eta 2024-2025 ikasturtearen lehen zatian sei ikastetxerekin. Guztira, bi proiektu bereizi gauzatu dira, baina lan-logika berarekin eta biak Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean.

Proiektuaren helburua da herritartasun globalerako hezkuntza txertatzea diziplina anitzen ikuspegitik Iruñeko Padre Moret Irubide BHIIn, Eunate BHIIn, Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratuan eta Julio Caro Baroja BHIIn, Zizur Nagusiko Zizur BHIIn, Berriozarko Lantxotegi Elkartean eta Agoitzeko BHIIn.

Ikastetxeekin egiten den lana ikaskuntzako metodologia eraginkorretan, hezkuntzaren teknologia berritzailearen erabileran eta Palestinako errefuxiatuen egoeraren azterketan oinarritzen da, generoaren, giza eskubideen eta ingurumenaren jasangarritasunaren ikuspegitik.



Proiektuak hiru jarduera-ardatzen inguruan antolatzen dira:

1) prestakuntza zuzena eta irakasleen gaitasunak sendotzea Palestinako errefuxiatuen egoera ikasgelan txertatzeko, giza eskubideen, generoaren eta ingurumenaren jasangarritasunaren ikuspegitik;

2) ikasgelan ekintzak txertatzea bizipen-baliabideen eta baliabide berritzaileen bidez (Palestinako komunitateko kide baten lekukotasuna, "Urik dago Gazan?" joko kooperatiboa, "dabke" dantza palestinarreko saioak, te arabiarreko saioak Palestinako errefuxiatu batekin eta gune komunitarioen sormenezko mobilizazioa auzoko kolektiboekin);

3) sarean lan egitea beste GKE batzuekin eta GGKEen Koordinakundearekin Elkartasun Eskolak programaren esparruan.



2024-2025 ikasturterako proiektuaren lehen zatian, irakasleekin batera bakearen aldeko artibismoari buruzko ikastaro birtual berri bat diseinatu eta txertatu da, artistak diren eta lanarekin haien komunitateentzako bakeko bide bat eraiki duten Palestinako bost emakume errefuxiatuen irudiak eta ibilbideak jasoz. Gainera, artibismoaren inguruko tailerrak diseinatu dira ikasgelan txertatzeko. Tailer horiek 2025eko urtariletik aurrera egingo dira eta, horiekin, artibismoko instalazio bat egingo da ikasturtearen amaieran erakusteko.

Beste alde batetik, ikaskuntza horiek bultzatzeko, hezkuntza-teknologiarekin lotutako berrikuntzako elementuak sartzen dira, eta Genially lineako plataforma irakasleei hurbiltzen zaie. Era berean, tresna pedagogikoen zeharkakotasun eleaniztuna indartu da, sail eta talde berriak sartzeko; hala, edukiak gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez sortu dira.

Bi klaseetan irakasleek ondoen baloratu duten prestakuntzako ekintzetako bat izan da web-mintegiak egitea bertako hezitzaileekin: apirilean, UNRWA agentziak Jordanian dituen eskoletako hezkuntza sailaren koordinazioekin eta azaroan Samir Allouche irakaslearekin, Libanon dagoen Palestinako errefuxiatua eta irakasle aditua UNRWA erakundeko ikasleen parlamentuko programan.



23-24 proiektuan, bost ikastetxeetako irakasleen topaketa egin zen, proiektua batera ebaluatzeko eta sinergiak sortzeko. Aukera erabili zen Palestinako laguntzaile errefuxiatu batekin batera Palestinako gastronomia tradizionalaren inguruko sentsibilizazioko ekintza bat egiteko.

Palestinako errefuxiatuen egoera humanitarioaren aldeko mobilizazioaren parte, 23-24 ikasturtearen amaieran Zizur BHIko ikasleek ekitaldi bat egin zuten institutuaren inguruan Zizur Nagusiko udalarekin eta Biraia Dantza Taldea auzokoen taldearekin elkarlanean. Horren esparruan, adierazpen bat idatzi, te arabiarreko saio bat antolatu eta "dabke" dantza palestinarreko erakustaldi bat egin zen.



Lantxotegi Elkarteari dagokionez, maiatzaren amaieran elkartearen lanaren balioak jasotzen dituen horma-irudi bat inauguratu zuten eta ibai batez inguratutako olibondo bat sartu zuten, Gazako herritarren ingurumen-eskubideen defentsan. Halaber, inaugurazio honetarako, ikasle eta irakasleek Palestinako jaki tipikoak prestatu zituzten.



Agoitzeko BHIk aurreko ikasturtean ekin zion proiektuari, eta kultur-aniztasunaren inguruko ohiko jardunaldia aprobetxatu zuten (Aste Santuko oporren bezperan, hain zuzen ere) jolastokiko lurrean egindako horma-irudi handi bat inauguratzeko. Horma-irudi horretan, Palestinako errefuxiatuen omenezko olibondo bat marraztu zuten, elkartasuneko hitz eta mezuekin batera. Jardunaldiaren esparruan Palestinako olerkiak irakurri zituzten eta te arabiarreko erakustaldi bat egin zuten.

Iruñeko Txantrea auzoko ikastetxeak elkarlanean aritu ziren Gazako larrialdi humanitarioko egoeraren inguruko sentikor bihurtzeko bi jardunaldi komunitario eskaintzeko, "Olibondo bat eta bertso bat" lelopean. Auzoko hainbat kolektibo eta erakunde batu ziren jardunaldietara. Egindako ekintzen artean, 2023an margotutako horma-irudia aldatu eta Nakbaren urteurrenaren 76. zenbakira eguneratu zuten Trazo Espacio Creativo taldearekin elkarlanean; Dantxaldi taldearekin eta Jai Batzordearekin (auzoaren koordinakunde kulturala, hain zuzen) batera dabke dantzako koreografia baten erakustaldiak egin zituzten; hitzaldi bat egin zuten auzoko liburutegi publikoarekin eta Kaskallueta sozietate gastronomikoaren elkarlanean; eta sendagaietako kutxatilen antza zuten kutxak egin zituzten olerki palestinarrekin eta auzoko poemagileek sortutako olerkiekin, Zero Kotan kolektiboarekin elkarlanean. Kutxatila horiek saldu eta ia 1.000 € irabazi ziren; gero, UNRWA erakundeari eman zitzaizkion.



Horrez gain, te arabiarreko erakustaldia eta mikrofono irekiko saioak egin zituzten, Palestinarekiko eta errefuxiatuekiko elkartasuneko olerkiak ozen irakurtzeko. Olerki horiek, era berean, hiru astez auzoko liburutegian ikusgai egon zen olerki-collage erakusketa bat eragin zuten.

Aldi berean, eta ikastetxe berrietako batekin elkarlanean, Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratuarekin, olibondoak landatu ziren sinbolikoki hainbat ikastetxetan. Olibondo bakoitzak Gazan dauden Palestinako errefuxiatuen kanpamentu baten izena jaso zuen eta guztiei plaka bat jarri zitzaion, non olibondoaren izena, kolektibo/zentro laguntzaileak eta UNRWA idatzi ziren, baita Nafarroan landatutako olibondo guztiak erakusten dituen mapa digital batera eramaten gaituen QR kode bat ere.

2023-2024 ikasturtean (urtarriletik ekainera), 982 lagunek hartu zuten parte proiektuan; horietatik, 43 irakasleak ziren eta 939 bigarren hezkuntzako eta lanbide-heziketako ikasleak. 2024-2025 ikasturtearen lehen zatian (irailtik abendura), 1.021 pertsonak hartu zuten parte (54 irakasle eta 967 ikasle).

Nafarroako Gobernuaren finantzaketa 38.000 €-koa izan zen lehen proiektuan, eta 40.000 €-koa bigarrean.



INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN BESTE BERRI ETA EKINTZA BATZUK

Nafarroako GGKEen Koordinakundearen erakunde kidea

2013ko otsailean probaldia hasi eta 2014ko apirilean sarrera onartu zenetik, hamar urte daramatza dagoeneko UNRWA Nafarroa erakundeak Nafarroako GGKEen Koordinakundearen parte izaten, eskubide osoko erakunde gisa. Ordutik, 2022an barne, erakundeak modu aktiboan parte hartu du ohiko eta ohiz kanpoko batzarretan, hezkuntza formaleko batzordean eta Elkartasun Eskolen lantaldean.



Hitzaldia errefuxiatu batekin eta olibondoa landatzea Iturrama BHI

Iturrama BHI Elkartasun Eskolei lotutako gure hezkuntzako proiektura atxikitutako ikastetxeetako bat izan zen ibilbidearen lehen urteetan. Gaur egun, ez daude gure proiektuaren barruan, baina Palestinako errefuxiatuen egoera humanitarioari ikasgelan heltzeko hezkuntzako ekintzak egiten dituzte, modu autonomoan. 2023ko martxoan, antolatu zuten kultura astera gonbidatu gintuzten, eta hitzaldi bat egin zen Palestinako errefuxiatu laguntzaile batekin. Gainera, olibondoen landaketa sinbolikoarekin bat egin zuten.



Iruñeko San Ignazio-Jesuitak Ikastetxeko ikasleekin lankidetza

UNRWA Nafarroa "Zurekin, errealitateari begiratzen diogu" herritarren partaidetzarako proiektuarekin lankidetzan ari gara duela urte batzuetatik. Ikastetxearen beraren boluntariotza-planaren barruko proiektu bat da. Horren bidez, batxilergoko 1. mailako ikasleak GKE batera joaten dira eta sentsibilizazioko ekintza bat gauzatzen dute, Nafarroako gizarte-sarearen ekintza humanitarioko eta elkartasuneko lana ikusarazteko.

Urrian zehar, hiru ikaslek Palestinako errefuxiatuen egoera humanitarioari buruzko sentsibilizazioko poster bat egin zuten eta bertatik bertara ezagutu zuten UNRWA erakundeak Nafarroan duen ordezkartzan egiten den lana.

Motxila 21 kontzertu solidarioa Gazako larrialdiaren ondorioz

UNRWA Nafarroak 4.610 € jaso zituen otsailean Totem Aretoan Motxila 21 musika taldeak antolatutako kontzertu solidario bati esker. Nafarroako artista ugariak parte hartu zuten ekitaldi horretan, eta UNRWA agentziak Gazan egiten duen lan humanitarioa eta Chernobil Elkarteak Ukrainako gerrak eragindako haurrei eskainitako laguntza babesteko dirua biltzea izan zuen helburu. Ekimena taldearen eta parte-hartzaileen elkartzuneko adierazpen bat izan zen. Izan ere, ahaleginak batu zituzten nazioarteko premiazko arazoei laguntzeko.



Navarra TVn parte hartzea ahaztutako krisialdi humanitarioen funtsarekin

Nafarroako Kutxa Fundazioaren ahaztutako krisialdi humanitarioen funtsak UNRWA Nafarroa aukeratu du Libanon ama-haurren osasunaren inguruko lana finantzatzeko.

Herritarrei emaitzak erakusteko ekintzetako bat da erakundeak tokiko komunikabideetan parte hartzea. Kasu honetan, Navarra TV eta "Está Pasando" programaren esparruan.

Gazan esku hartzeko hitzarmena sinatzea Burlatako udalarekin eta emaitzak itzultzea

Burlatako udalak, herritarren partaidetzarako udal-mahaiaren bitartez, UNRWA erakundeak Gazan egindako lana aukeratu zuen 13.000 €-ko diru-laguntza jasotzeko. 2024. urtean zehar erabili beharko du zerrendan, herritarrek oinarritzko elikagaiak eskuratzeko proiektu baterako.

Apirilean sinatzeko ekitaldia egin zen alkatearekin eta gizarte zerbitzuetako zinegotzigoarekin batera, eta abenduan Burlatako herritarrei emaitzak itzultzeko saioa egin zen. Bietan, UNRWA España erakundeko laguntza humanitarioko zuzendari Lorena Gamitok parte hartu zuen.



Nafarroako Gobernuaren Giza Eskubideen Saria

2024ko irailaren 21ean, Bakearen Nazioarteko Egunean, Nafarroako Gobernuak UNRWA aitortu zuen errefuxiatu palestinarrekin duen konpromisoagatik eta egiten duen lan humanitarioagatik. UNRWA España erakundearen zuzendari exekutiboak, Raquel Martík, Tuteran egindako ekitaldi instituzional batean jaso zuen esker ona, eta 2006tik erakundeak Nafarroaren eskutik jaso duen etengabeko laguntza azpimarratu zuen.

Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivite, Nafarroako Parlamentuko presidente Unai Hualde, Foru Gobernuako Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusi Inés Jiménez eta Tuterako alkate Alejandro Toquero izan ziren ekitaldiko buru.



**Gure lana aurrera eramaten laguntzen diguzuenoi, guztioi,
ESKERRIK ASKO, gure taldeko kide zaretela jakiteak
lasaitu egiten gaitu.**

**Talde konprometitu, ausart eta Palestinako errefuxiatuen
eskubideak defendatzen jarraitzeko asmoa duen
talde baten parte zarete. Bihotz-bihotzez, ESKERRIK ASKO.**

Aurrera jarrai dezagun, 6 milioi arrazoi baino gehiago ditugu!

- UNRWA Nafarroako taldea



Palestinako errefuxiatuen biztanleriarekin lan egiten
dugu etorkizun duin baten alde.

erkidego batzordea



unrwa
nafarroa

Nafarroako Ordezkaritza

C/ Iturrama, 5 - entreplanta - bulegoa 8

31007 Iruñea

Tel. 948 254 648

Email: navarra@unrwa.es